

GUREAKEKO 23 PERTSONA ETA LAGUNTZAKO LANGILEAK MADRILERA JOANGO DIRA ASTEBURU HONETAN EPE BATERA AURKEZTEKO

Donostia, 2022ko abenduaren 16a. Datorren igandean, abenduaren 18an, GUREAKEko 23 pertsona aurkeztuko dira Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak Gipuzkoarako deitzen dituen hiru plazak eskuratzeko azterketara. Goizeko 10:00etan izango da azterketa Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Zuzenbide, Zientzia eta Psikologia Fakultatean.

Azterketara aurkezten diren pertsonak Gipuzkoan gauzatuko diren Laguntzako Zeregin Osagarriak espezialitateko langile finkoen lanpostuetan dauden hiru plazak lortzeko aukera izango dute.

2014tik egiten den bezala, GUREAKEk prozesu osoan zehar azterketara aurkezteko interesa duten pertsonen lagundu die. Deialdi honetan, zehazki, laguntza eman zaie bai izen emate telematikoa egiteko orduan, bai Madrilerako bidaiaren kudeaketan. Izan ere, bidaiak laguntzako langileekin egiteaz gain, GUREAKEk bidaiak eta egonaldia kofinantzatzen ditu. Halaber, azpimarratzekoa da azterketaz gain, ikasketa material guztia kolektiboaren beharretara egokituta dagoela.

Kevin Joyce, GUREAKEko enplegu teknikariaren arabera, gero eta pertsona gehiago animatzen dira proba horietara aurkeztera; “2014ko deialdian hiru pertsona baino ez ziren aurkeztu, eta oraingoan 23 dira. Nire ustez, aurreko deialdiek kolektiboa funtzio publikoan sartzeari errealitate bat dela frogatzeko balio izan dute. Gainera, esfortzu eta gaitasun esperientziak ikusaraztea lagungarria izan da hautaketa probetara gero eta jende gehiago animatu dadin”.

Laneratzeko osorako bidean aurrera eginez

Geroz eta gehiago dira adimen-desgaitasuna duten pertsonentzat gordetzen diren enplegu publikoko plazak. Espainiako Gobernuak aspalditik ari da modalitate hori praktikan jartzen; 2018an 190 plaza izan ziren kolektibo horrentzat, eta 2019an 234 iritsi ziren.

Bestalde, Gipuzkoan mugarria izan zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2019ko lehen deialdia desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat gordetako hiru plazatarako. Orduko hartan, GUREAKEko pertsona batek hiru plazetako bat lortu zuen zerbitzu orokorretako eta artxiboko lanetan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren deialdirako, GUREAKEk aholkularitza eman zion foru erakundeari desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat egokiak izan daitezkeen lanpostuen katalogo bat egiten, hautaketa-prozesua egokitzen eta lanpostuan bertan plaza lortzen duten pertsonen laguntzeko.